

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TELEBISTAKO PRODUKZIORAKO BALIABIDE TEKNIKOEN ETA MATERIALEN KUDEAKETA	Iraupena	70
		Espezifikoa	
Kodea	UF0368		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produkzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebistako ekoizpen-baliabideen kudeaketa	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ikus-entzunezko lanen produkzioko giza baliabideen kudeaketa (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Telebistako produkzioko baliabide ekonomikoen kudeaketa		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0208_3 TELEBISTAKO EKOIZPEN-BALIABIDEAK KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Telebista-programen produkzioan esku hartzen duten baliabide material eta teknikoak identifikatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozesuak aztertzea, eta administrazio-izapideak eta produkzioan esku hartzen duten zerbitzu-enpresak identifikatzea.

E1.1 Baliabide propioak (teknikoak eta materialak) identifikatzeko eta aukeratzeko prozesuak deskribatzea, zer sailek esku hartzen duten adieraziz, eta aurrera eramateko egin behar diren kudeaketak deskribatuz.

E1.2 Besteren baliabide teknikoak identifikatzeko, aukeratzeko eta kontratatzekeo prozesuak deskribatzea, esku hartzen duten enpresa tipoak eta erakundeak adieraziz eta sailkatuz, eta aurrera eramateko egin behar diren kudeaketak deskribatuz.

E1.3 Besteren baliabide materialak identifikatzeko, aukeratzeko eta kontratatzekeo prozesuak deskribatzea, esku hartzen duten enpresa tipoak eta erakundeak adieraziz eta sailkatuz, eta aurrera eramateko egin behar diren kudeaketak deskribatuz.

E1.4 Garraio-, ostatu- eta hornidura-enpresak identifikatzea, esku hartzen duten enpresa tipoak eta erakundeak adieraziz eta sailkatuz, eta aurrera eramateko egin behar diren kudeaketak deskribatuz.

E1.5 Telebista-programak produzitzeko erabiltzen diren baimen ohikoak identifikatzea, eta haiek lortzeko egin behar diren izapideak deskribatzea.

E1.6 Baliabide teknikoak eta grabatutako materiala biltegitzeko teknikak eta sistemak deskribatzea.

E1.7 Produkzio-prozesuaren kontrola eta segimendua egiteko erabiltzen diren inprimakien, deialdien eta lan-aginduen edukiak eta funtzioak deskribatzea.

E1.8 Telebista-programa baten gidotik edo eskaletatik eta aurrekontutik abiatuz:

- o Baimen-beharrak identifikatzea, eta horiek lortzeko egin behar diren izapideak azaltzea.
- o Garraio-, ostatu- eta hornidura-beharrak ondorioztatzea.
- o Beharrezkoak izango diren enpresa-zerbitzuak identifikatzea, kontratatzekeo beharrezkoak diren izapideak eta aukeratzeko erabilitako irizpideak kontuan izanik.
- o Dokumentuak ongi prestatzea, teknika eta kode egokiekkin, eta tresna informatiko egokiak erabiliz.

A2: Telebista-programen produkzioan irudia eta soinua hainbat bitarteko eta teknologiatan hartzeko, grabatzeko, tratatzeko, erreproduzitzeko eta emateko erabiltzen diren sistemen ezaugarriak eta prestazioak aztertzea.

E1.1 Telebistako nazioarteko sistemak, haien ezaugarriak, geografia-hedadura eta produkzioan eta programen nazioarteko trukean duen eragina aipatzea.

E1.2 Bideo-sistemak erabilitako teknologiaren arabera sailkatzea, haien ezaugarriak deskribatzea eta produkzioaren kalitatearekin lotzea.

E1.3 Irudia eta soinua bitarteko elektroniko bidez hartzeko eta grabatzeko sistemen elementuak identifikatzea, ezaugarri teknikoak eta prestazioak deskribatuz, eta formatuak ikus-entzunezko lanaren kalitatearekin lotuz.

E1.4 Irudia bitarteko elektronikoaren bidez monitorizatzeko sistemaren elementuak identifikatzea, ikustaldirako parametro egokiak adieraziz.

E1.5 Bideoaren grabazio/erreprodukzio magnetikoaren sistemak identifikatzea, eta grabazio-formatuak sailkatzea, erabilitako teknologia eta haietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak adieraziz.

E1.6 Irudia elektronikoki editatzeko moduak identifikatzea, eta modu horiek bereizten dituzten ezaugarriak azaltzea.

E1.7 Kamera askorekin grabatzean eta irudien postprodukzioan bideo-seinaleari ematen zaion tratamendua eta lanketa identifikatzea.

EI2.8 Bideo-programen postproduzioan eta irudien sorkuntza sintetikoan erabiltzen diren oinarriko tratamendu informatikoak zerrendatzea.

EI2.9 Multimedia-teknologia deritzenak eta haien elementu teknologiko osagaiak identifikatzea, baita bideo- eta telebista-industriarekin duten harremana ere.

EI2.10 Bitarteko teknikoan eta ekipamenduen oinarriko prestazioak identifikatzea eta baloratzea.

A3: Telebista-programen produkzioan soinua hartzeko, grabatzeko, tratatzeko eta erreproduzitzeko erabiltzen diren sistemen ezaugarriak eta prestazioak aztertzea.

EI3.1 Soinua bitarteko elektronikoan eta prozesu digitalen bidez sortzeko, hartzeko, grabatzeko eta tratatzeko sistemak osatzen dituzten elementuak identifikatzea, ezaugarri teknikoak eta prestazioak deskribatuz.

EI3.2 Soinu-sistemak erabilitako teknologiaren arabera sailkatzea, haietako bakoitzaren ezaugarriak eta erabilera-eremu bereizgarrienak deskribatuz.

EI3.3 Soinua grabatzeko/erreproduzitzeko euskarrien formatuak zerrendatzea, erabilitako teknologiarekin eta produkzioak eskatzen dituen kalitateekin lotuz.

EI3.4 Soinua grabatzeko espazioen eta estudioen ezaugarri akustikoak deskribatzea, definitzen dituzten magnitudeak adieraziz, eta soinuaren hartualdiak kalitatea hobetzeko gehien erabiltzen diren baliabideekin lotuz.

EI3.5 Soinuaren bitarteko teknikoan eta ekipamenduen oinarriko prestazioak identifikatzea eta baloratzea.

A4: Telebista-programak transmititzeko eta jasotzeko sistemen ezaugarriak eta prestazioak aztertzea.

EI4.1 Telebista-seinalea transmititzeko sistema erabilienak identifikatzea

(hertzarrak, sateliteak, mikrouhinak), haien aplikazioak, estaldura, kalitatea eta kostua erlazionatuz.

EI4.2 Telebista-seinalea transmititzeko modu berriak adieraztea (telebistako PALplus estandarra, MMDS sistemak edo mikrouhin bidezkoak, telebista digitala, bereizmen handiko telebista, LTD), haien aplikazioak, estaldura, kalitatea eta kostua erlazionatuz.

EI4.3 Kable bidezko telebista-sare ohikoan osatzen dituzten elementuak, zerbitzuen harrerako sarrera-modalitateak eta beraien zerbitzuak ustiatzeko bide berriak identifikatzea.

EI4.4 Telebista-egiturek eta beste telekomunikazio-enpresa batzuek ustiatzen dituzten balio erantsiko zerbitzu berriak (teletestua, bideotestua, telebista interaktiboa, etab.).

A5: Telebista-programen produkzioan erabilitako argiztapen-sistemen ezaugarriak eta prestazioak aztertzea.

EI5.1 Telebista-programak barrualdean nahiz kanpoaldean egitean argiztatzeko erabiltzen diren ekipoen prestazioak deskribatzea.

EI5.2 Argia tratatzeko eta definitutako argi-giroetara egokitzeko erabiltzen diren baliabideak, teknikak eta osagarriak deskribatzea.

EI5.3 Argiztapenaren tratamendu informatizatu berriak deskribatzea, eta erabilera, kalitate eta kostuarekin lotzea.

EI5.4 Argiztapeneko bitarteko teknikoan eta ekipamenduen oinarriko prestazioak identifikatzea eta baloratzea.

A6: Telebista-produkzio materialen, ekipoen eta/edo zerbitzuen salerosketa- edo alokairu-jarduerak aztertzea.

EI6.1 Zerbitzuen, materialen eta ekipoen salerosketan edo alokairuan erabiltzen diren merkataritza-kontratu tipoa identifikatzea, eta haiek irudikatzen dituzten dokumentu-ereduak ezagutzea.

EI6.2 Ikus-entzunezko produkzioan zerbitzuen eta materialen salerosketa- edo alokairu-baldintzak negoziatzeko prozesuaren teknikak eta etapak deskribatzea.

EI6.3 Ikus-entzunezko industrian, materialen, ekipoen edo zerbitzuen hornitzaileen eskaintzak aukeratzeko erabiltzen diren irizpideak bereiztea, haiek zehazten dituzten faktoreak kontuan izanik (kalitateak, garraioa, beherapenak, ordaintzeko baldintzak eta bermeak, besteak beste).

EI6.4 Ikus-entzunezko industriarekin erlazionatutako zerbitzuen, materialen eta ekipoen salerosketan edo alokairuan erabiltzen diren kontratu tipoa identifikatzea eta deskribatzea.

EI6.5 Programa bat produzitzeko zehaztutako erosketa- eta berme-baldintzak, zerbitzu-mailak eta helburu jakin batzuk zehazten dituzten hiru hornitzaileen eskaintzetatik edo zerbitzu-kontratuetatik abiatuz, baldintza onenak eskaintzen dituen eta produkzioaren helburuetara egokitzen dena aukeratzeko, negoziatu edo berrikusi beharreko puntuak detektatuz.

Edukiak

1. Irudiaren hartualdia eta erreprodukzioa

- Nazioarteko telebista-sistemen ezaugarriak.
- Bideo-sistemak: motak. Produkzioaren kalitateari dagozkion ezaugarriak.
- Irudia hartzeko eta grabatzeko sistemen elementuak: Ezaugarri teknikoak. Prestazioak
- Irudia monitorizatzeko elementuak: ikuskaldiaren parametroak.
- Bideoa grabatzeko/erreproduzitzeko sistemak: Formatuak. Teknologia. Ezaugarriak.
- Irudia editatzeko eta tratatzeko sistemen ezaugarriak.
 - Bideoa editatzeko sistemak: edizio elektronikoa eta ez-lineala.
 - Irudien sortze sintetikoa.
 - Efektu digitalak dituen irudiaren postprodukzioa.
- Multimedia-teknologiaren eta telebista-produkzioaren arteko harremana.

- Irudia erreproduzitzeko eta proiektatzeko sistemak.
 - Sistema analogikoen arauak. PAL.
 - Sistema digitalen arauak. HD Ready, Full HD, HDTV.
 - Ohiko gailuak. Hodia, LCD, plasmak, proiektagailuak, videowalla...

2. Soinuaren hartualdia eta erreprodukzioa

- Soinuaren hartualdia: sistemak eta ezaugarriak.
- Soinua hartzeko, grabatzeko, erreproduzitzeko eta tratatzeko erabiltzen diren ekipoak. Ezaugarri teknikoak. Prestazioak
- Soinua grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarrien teknologia eta kalitatea: Formatu analogikoa. Formatu digitala.
- Espazioen eta estudioen ezaugarri akustikoak.

3. Seinaleen transmisioa eta harrera

- Telebista-seinaleak transmititzeko sistemen eta moduen ezaugarriak.
 - Telebista analogikoa.
 - Kable bidezko telebista.
 - Satellite bidezko telebista.
 - Lurreko telebista digitala (LTD).
- Unitate mugikorak, DSNG eta Fly away
- Telekomunikazio-teknologia berriak.
- Balio erantsiko zerbitzuak: Teletestua. Bideotestua. Telebista interaktiboa, etab.

4. Argiztapen-sistemak

- Telebista-programetan erabiltzen diren argiztapen-ekipoen ezaugarriak.
- Giroak argiztatzeko teknikak.
- Ikuskizunak argiztatzeko sistemak.
- Argiztapenaren tratamendu informatizatuak.

5. Telebistako produkzioko materialen, ekipoen eta/edo zerbitzuen salerosketa edo alokairua

- Telebistako produkzioko produktuen eta zerbitzuen alokairu- eta salerosketa-kontratuak.
- Alokairua edo salerosketa negoziatzeko prozesuaren teknikak eta etapak
- Materialen, ekipoen edo zerbitzuen hornitzaileen eskaintzak aukeratzeko irizpideak.
- Finantza-errentamenduaren edo leasingaren ezaugarriak.
- Zerbitzu-enpresen eta programak ekoizten laguntzen duten enpresen sailkapena.

6. Baliabideak kudeatzeko egin beharreko irizpideak

- Jokaespazioak aurkitzea, eraikitzea eta/edo alokatzea.
- Baimenen kudeaketa.
- Stockaren, garraioaren eta horniduraren kudeaketa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza